


Pausoz pauso, auzolanaren bidez nahi dugun auzoa eraikiz



Margareth Albaina, Koldo Alzola eta Ane Zelaia *

Gako-hitzak:
auzolana,
espazio publikoa
Gasteizko Alde Zaharra

Gasteizko Alde Zaharreko Egin Aylluko hiru kidek idatzi dute artikulua, elkarte osoaren izenean. Egin Ayllukoek, beste hainbat auzotarrekin batera, auzoa pairatzen ari den gentrifikazioa edo elitizazioa salatuta. Hala ere, salaketan gelditu barik, klabe positiboan ere zenbait proposamen egin dituzte. Horietatik, auzolanaren hezurmamituta hiru proiektu aurkeztu dizkigute.

Sarri, bulego ofizialeatik planifikatzen da auzoen etorkizuna, auzokideen iritzia kontuan hartu gabe eta haien ezaugarri zein beharrak zeintzuk diren jakin gabe. Horixe gertatzen da gaur egun Gasteizko Alde Zaharrean, zeinetan biziberritze-plan berriek auzoaren eta auzokideen kontra eginak diruditen: behar larriak eta gabezia sozioekonomikoak dituen auzoa da gurea, horregatik hain zuzen auzo-ekipamendu sozial minimoen beharrean dagoena. Oinarrizkoak diren beharrak ditu auzo honek, behar bezalako eskola bat; itoginik eta saturazio-rik gabeko osasun-zentro bat; gure nagusientzako eguneko-zentroa; gutxienez liburutegi bat auzoan. Baina baita eremu irekiak ere, plazak, gune berdeak eta nola ez, elkar ezagutu eta topatzeko, poztasun zein kezka partekatzeko, elkartzuna adierazteko edota ehun sozialak eratzeko baliagarri zaizkigun aisialdi edota kirol-eremu komunak. Beste hitz batzuekin, Auzoa (letra larriz) egin ahal izateko eremuak.

Seguruena bada honen aurrean auzokideok egiteko gutxi daukagula esaten duenik. Baina bizilagunok oro har, eta Alde Zaharreko bizilagunok zehazki, behar izanez gero, erabakigarriak bezain baliotsuak izan daitezkeen erremintak ditugu eskura. Auzolana kasu (1). Ikus ditzagun azken urte hauetan Gasteizko Alde Zaharrean izan diren Auzolaneko esperientziak, gune publikoen eraikuntzan edota berreskurapenean islatu direnak.

I. Auzolana pilotalekua

2008. urteko ekainean, Alde Zaharreko zenbait kolektibok (2), hainbat bileraren ostean egindako hausnarketak plazaratu genituen:

Alde Zaharra aisialdirako zein elkartzeko gune publikorik gabe uzten ari dira. (...) Edo haien nabia al da auzoaren bizitzaren etxeen baretatik ez ateratzea? Horren itsusi egiten al dugu auzoko postal zein argazkietan?

(1) Auzoaren onura kolektiboa lortzeko borondatezko auzokideen lan gisa definienez hitz hau.

(2) Tarlean. Eskolako Gurasoen Elkartea. Gaztetxea. Gao Lacho Drom ijitoen kolektiboa edota Egin Ayllu zeudelarik.


Garai horretan gune konkretu baten inguruan erakarri nahi genuen jendearen arreta, orduan San Jose frontoia zenaren inguruan hain zuzen.

(...) Urtebete baino gehiago pasatu da jada itxi zutenetik. Egun horietan teulatuko lauza bat mugitu eta euriaren eraginez ura hasi zen barrura sartzen. Gaur egun oraindik ez dute konpondu.

Baina oraingo honetan ez geunden salaketa eta kexarekin gelditzeko prest.

Eta zergatik ez diogu besoak gurutzatuta izateari uzten? Uko egingo al diogu gune horri, erabiltzen eta estimatzen ez duten horien utzikeriagatik? Benetan uste al dute auzokideok ez garelako elkarren artean gune hau berreskuratu, gestionatu eta disfrutatuta abal izateko gai?

Hitzetatik ekintzetara pasatu ahal izateko, auzoak bere frontoia berreskuratzeko Auzolanerako deialdi publikoa egin zen. Adostutako egunean, hamaika auzokideren babesarekin, bertaratutako zenbait komunikabideren presentziarekin (finean, morbo hutsez, frontoira sartu ahal izateko dauden atea suntsituko genituen momentuaren zain zeudenak) eta distantziatik zelatari zeuden udaltzainekin, auzokideon Auzolanak bere lehenbiziko momentu magikoa bizi izan zuen: ez zen indarrez aterik bota behar izan, irekitze hutsa nahikoa izan zen, eta harridura-aurpegien artean, auzoak berea zuen pilotalekua berreskuratu zuela ikusi genuen. Auzolanaren deitzaileok, modu sekretuan (klandestinoki esan genezake) lanean ibili ginen guztion eskuekin batera, teilatua txukundu eta konpondu genuen, lurra berriz margotu genuen, frontisa eta gainontzeko paretak jokorako prest utzi genituen, aldagelak txukundu genituen... eta frontoia gaur egun ezagutzen dugun izenarekin berrizendatu genuen: *Auzolana pilotalekua* (paretetako batean kolore biziz egindako graffiti batek zioen moduan).



1. Auzolana pilotalekua; 2. Etxauri plaza; 3. Bolo-bolo bolatokia

Hiru urte geroago, Auzolana pilotalekuak bertan dirau. Erabiltzaile direnen batzar bat arduratzen da haren gestio zein antolakuntzaz: inork ez du ordaintzen frontoia erabiltzeko; garbiketa eta mantentze-lanak erabiltzaile guztien gauza dira... Gauzak horrela, auzoak gune bat berreskuratu du, eta bertan eskupilotan aritzeaz gain, dantza edota esgrimako eskolak ematen dira, prentsaurrekoak egiten dira, bertso-txapelketak, herri-bazkariak, batzarrak, jaialdiak, etab. antolatzen dira. Gaur egun horrenbestekoa da gune honen erabilera auzoko jendearen aldetik (eta auzokoak ez direnen aldetik ere), ezen egun zein ordutegi librerik ez den gelditzen.

2. Etxauri plaza (3)

Urte bat geroago, 2009. urteko ekainean, Auzolan berri baterako deialdia egin zen auzoan. Kasu honetan Etxauri plaza berreskuratzea zen helburua (auzoak dituen gutxietakoa bat). Lagin arkeologikoak egingo ziren aitzakiarekin, udalak plaza honen “6 bilabeterako behin-behineko ixtea”-ri ekin zion... eta jadanik, hesiak jarri zituztenetik hiru urte baino gehiago igaroak ziren. Plazaren egoera penagarria zen, urteen poderioz leku hau zabortegei batean bilakatuz joan baitzen.

Beste kasuetan bezala, baimen ofizialik ez zuen Auzolanaren bitartez, eremuan zeuden hesiak kendu eta barnealdea garbitu nahi genuen. Esandako egun eta orduan profil eta adin ezberdineko (16 eta 87 urte bitartean) 50 bat pertsona elkartu ginen plazan, eta egitekoak burutzeko erremintak hartuta, plazako hesiak kentzeari ekin genion. Hiru minuturen buruan, bertan ziren udaltzainak, baina harriturik, ordu eta erdi kostatu zitzairen bertan egiten geundena gelditzea. Ordurako eremua jada hesirik gabe zegoen, zaborra jasota eta sastrakak garbituta. Lagin arkeologikoak seinalatu genituen eta aldi berean, udalaren utzikeria salatu genuen. Kasualitateak kasualitate, udalak, plaza biziberritzeko hurrengo asteetan zehar martxan jarri behar omen zuen plan batekin erantzun zuen.

(3) Informazio gehiagorako: <http://lagenterula.wordpress.com/2010/01/23/etxauri-plaza-berreskuratua-etxauri-recuperada/>

Baina beste sei hilabete pasatu ziren, eta bertako zuloak estaltzeaz gain udalak plaza guztiz ahaztu zuen berriz ere. Gauzak horrela, beste Auzolan bat deitzea erabaki genuen, guk hasitakoa guk amaitzeko asmoarekin eta plazan bertan eraikiko genuen boleibol jokaleku batekin inauguratzeko. Eta aurreko jokamolde berdina erabiliz, halaxe egin genuen, obra-lanak boleibol kolektiboaren lehenbiziko partidarekin amaitu genituen. Udalak ordea, pixkanaka-pixkanaka Auzolanaren aukerez jabetzen ari zen auzoaren aurrean lotsatuta, boleiboleko jokalekua suntsitzea erabaki zuen, bertan saskibaloiko jokalekua, ping-pong mahaiak eta umeentzako eremu bat eraiki zituelarik. Baina gure helburua bete genuen... auzokideon artean Etxauri plaza erabilera kolektiborako berreskuratu genuen.

3. Kutxiren erdialdean arabar bolatokia eraikiz (4)

Orain arte Auzolanaren bidez egin den azken herri-eraikuntzak, aurrekoek ez zituzten ezaugarri berezi batzuk ditu. Pribatua zen eremu bat publiko bilakatzea zen helburua: zehazki, Kutxi kalearen erdian zegoen orubea, Biziberritze Planaren arautegiak zein jabetza-arazoez (5) hamar urtetan zehar 2 metroko hormaren atzean ezkutatzeko zegoen zabortegei zikina bihurtu zuten. Horregatik, 2010eko uztailaren lehenbiziko astean Auzolan berri batera deitu genituen auzokideak, orube-zabortegei hura arabar bolatoki bilakatzeko asmoarekin: Bolo-bolo bolatokia.

Horrekin batera bi helburu gehiago genituen: auzoak aurretik izan zuen beste gune publiko baten desagertzea salatzea (erakusketak egiteko Katedrala Fundazioaren esku gelditu zen bolatoki publikoa) eta, gainera, auzoko jende nagusiari keinu bat zabaltzea. Eurak baitziren gehienbat bolatokiarekin gozatzen zutenak, eta beraz haiek Auzolanak eskaintzen dituen aukerak ulertzea nahi genuen, eta guztiaren ginetik, gutxienez euren oniritzia jasotzea.

(4) Informazio gehiagorako: <http://lagenterula.wordpress.com/2010/07/02/el-barrio-ya-tiene-su-bolera-bolo-bolo-ya-esta-en-marcha-un-nuevo-motivo-para-estar-zaharraz-harro/>

(5) Eraikin berri bat eraikitzeko baldintzek (lehen pisu bakarreko ikaztegia zegoen lekua) ekimen pribaturako onura gutxikoa egiten dute lur zati hau, eta udalak ez dauka erosteko asmorik. Aldi berean, lur horren jabetza zuen andreairekin oinardekoen artean arazoak daude.



*Bolo-bolo bolatokia
prestatzeko auzolana*



Uztaileko egun bero batean, arratsaldeko 5etan, Kutxi kalea terrazetan jesarritako jendez lepo zegoelarik bertan agertu ginen 50 bat pertsona (berriz ere profileta adin oso ezberdinekoak) eskuetan eskorgak, palak, eta 80 harea-zaku (lurra parekatu ahal izateko), bolatokia eraikitzeko egurrak... genituelarik. Bi mazo handi eta rotaflexa generamatzan ere, ideia nagusia jendeak kanpotik bolatokia ikusi ahal izateko hormaren erdia botatzea baitzen.

Begira genuen “publikoaren” harridura aurpegiaren artean, talde bat orubea garbitzen hasi zen, beste talde batek horma bota eta hondakinak garbitzen zituen bitartean. Hirugarren talde bat gertatzen ari zenaren eta bete nahi ziren helburuen inguruan jendea informatzen hasi zen. Gehiengoaren erreakzioa hunkigarria izan zen. Mahukak jaso eta lanera sartzen zen

jendea; tabernetatik ura zein edariak ekartzen zizkigun jendeak, eta onarpenez zein lanarekin aurrera segitzeko animoz beteriko zurrumurru orokorra.

Hamar egun geroago, udal-inozoez bolatokia suntsitu zuten. Horma berriro eraiki ostean atea ixteari ekin zioten. Gaur egun orubeak bertan jarraitzen du, erabilerarik gabe, eta berriro ere zabortege bihurtu da. Baina auzo honek Auzolanaren esperientziak asko ikasi du eta ziurrenik berriro ere praktikara eramango du, izaera kolektiboaren bidez apurka-apurka berrantantze nahi, behar eta merezi dugun auzoa eraiki ahal izateko.



° Margareth Albaina, Koldo Alzola eta Ane Zelaia Egin Ayllu elkarteko kideak dira.